

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2214

IRAGARKIA, 2023ko maiatzaren 3koa, Arabako Industria Administrazioaren lurralde-ordezkariera, Lantarongo (Araba) udalerrian «4,995 MWn/6,240 MWp-ko comunion III eguzki - instalazio fotovoltaikoa, 30 KVko sarearekin lotura duena», egiteko proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen IX. tituluaren eta Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (2020ko apirilaren 24ko EHAA), jendaurrean jartzen da proiektu hau:

– Eskatzailea: FV Comunion III, S.L.; IFK: B-05312517; helbide soziala: Pda. Salomo 3, Ondara-Alacanten.

– Eskaera: aldez aurreko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena.

– Xedea: energia elektrikoa sortzea teknologia fotovoltaikoaren bidez.

– Erreferentzia: 01 GEY 202200011: «4,995 MWn/6,240 MWp-ko comunion III eguzki - instalazio fotovoltaikoko proiektua, 30 KV-ko sarearekin lotura duena»

– Instalazioaren ezaugarriak:

– Lurrean dagoen planta fotovoltaikoa, 600 Wp-ko potentziadun 10.400 panel fotovoltaikok eta 25 inbertitzailek osatua (200 kW-ko 24 eta 195 kW-ko 1).

– 3250 kVAko 2 transformazio-zentro, hau da, egurats zabaleko transformadorea eta ETko gelaxkak, gainazalerako eraikin prefabrikatu trinko batean.

– Gainazaleko eraikin aurrefabrikatua ETko gelaxken bidez ebakitzeko zentro bat.

– Comunion I Parke Fotovoltaikoaren Sekzionamendu Zentrotik ebakutzeko linea elektrikoa. Zentro hori aireko eta lurpeko lotura bikoitzaren bidez lotuta dago. Banatzeko sarean, «LAMT – L1, SET Puentelarra»-n.

– Instalazioaren potentzia: 4,995 MWn.

– Eguzki - instalazio fotovoltaikoaren kokapena: 16. poligonoa, 326., 330. eta 332. partzelak, Lantaron (Araba).

– Aurrekontua: 1.757.396,00 euro.

– Proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar zaio, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2023ko maiatzaren 11, osteguna

Guztiek jakin dezaten ematen da argitara esandakoa, proiektua Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea, 2, Vitoria-Gasteiz) edo Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuen Jendaurreko Informazioaren atalean) aztertu ahal izan dadin (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/energia-meategiak/hasiera/>); horrela, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira, hogeiei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a.

Arabako Industria Administrazioako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRÍGUEZ DÍAZ.